



AMEZKETAKO UDALA



Kaixo adiskide:

Zure informaziorako, Albitzuri-Haundi harriarekin ospatuko den txapelketa honetan parte hartuko duzuenok honako arau hauek bete beharko dituzue, orain 4 urte eginiko Txapelketan jarritako berdinak lehen zazpiak, eta zortzigarrena arau berria litzateke:

- 1) Albitzuri-Haundi harria inork ez du ukituko ez eta inork frogarik egingo txapelketa egunera arte.
- 2) Txapelketa hasi aurretik harria garbitu egingo da.
- 3) Zein harrijasotzaile hasi lehena eta partaidetzaren ordena erabakitzeko zozketa egingo da.
- 4) Harrijasotzaile bakoitzak eta bere laguntzaileak hasi aurretik eskuak garbitu beharko dituzte.
- 5) Jasoaldiaren aurretik harria beti etzanda jarriko da.
- 6) Harrijasotzaile guztiak bere saioa egin ondoren berdinketa edo enpateren bat suertatzen bada, pixu gutxien duen harrijasotzaileari emango zaio lehentasuna sailkapenean.
- 7) Harrijasotzaile bakoitzaren lana 10 minutukoa izango da eta saio batetik bestera 3 minutuko tartea egongo da. Momentu honetan, 3 minutuko tarte horretan txanda egokitzen zaion harrijasotzaileak harria ukitu eta frogatzeko eskubidea izango du.
- 8) Harri-bolarekin erabiltzen den jantzia onartuko da baina garbia edukitzeko baldintzarekin. Honi buruz azken erabakia epaileak izango du.

Banatuko diren sariak ondorengoak dira:

POSTUA	SARIA
Irabazlea	1.300 €
2	1.000 €
3	900 €
4	800 €
5	700 €
6	600 €
7	500 €
8	400 €

Amezketan, Amezketan, 2019ko urriaren 17an.

Ifiaki Amundarain Tolosa
Alkatea

